



**EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 26koa Hezkuntza-Sailburuordearena, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituen, 2020-2021 ikasturterako curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa-taldeak baimentzea eskatzeko. (IE2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna).**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartutako Heziberri 2020 Planaren helburua argia da: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza-eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen errokin. Plan horrek "Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa" biltzen du, hezkuntza-eredu pedagogikoaren gida-lerro nagusiak xedatzen dituena hain zuzen eta ondorengo dekretuetan garatu direnak

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak honela dioenez, Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko konpetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar du. Aniztasunari erantzuteko neurriek ikaslearen hezkuntza-premiak asetzea izan behar dute xede, ingurune normalizatu eta inklusiboan. Neurriek, halaber, ikasleen ikasteko interesak, motibazioak eta konpetentziak hartu behar dituzte kontuan, eta, edonola ere, Haur Hezkuntzako ikasleen irteera-profilerako ezarritako dagoen konpetentzia-maila lortzeko bideak aurreikusi behar dituzte. Hori dela eta, Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailako ikasleei zuzenduta daude, ikasteko edo eskolara egokitzeko zailtasun nabariak dituztenei, ikasketa- edo ahalegin-faltagatik ez denean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua errazago eskuratu dezaten.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 DEKRETUAN eta oro har ezartzekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat eginez, deia egiten zaie Hezkuntza Sailaren mendeko zentro publikoei, ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa-talde berrien baimena eska dezaten. Ikasturte bateko edo bi ikasturteko iraupena duen curriculum-dibertsifikazioaren bidez gauzatuko dira hobekuntza-programa horiek, edo 2019-2020 ikasturterako baimendutako bi ikasturteko programak jarraituz.

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera gorabehera, adierazi behar da dokumentazioa aurkezteko ezarritako epeak zorrotz mantenduko direla. Hezkuntza Administrazioak programa honetan proposatutako diren ikastetxe bakoitzeko ikasleen zerrendak ezagutu behar ditu, arrazoizko epe batean 2020-21 ikasturteko eskola taldeen plangintza egokia egiteko.



## EBAZTEN DUT

### 1. Deialdiaren xedea

1. Deialdi honen helburua 2020-2021 ikasturtean Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei deitzea da Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak egin ditzaten. Lehentasuna izango dute Administrazioaren "Hamaika Esku" jarduera-planeari parte hartzen duten ikastetxe publikoek.
2. Curriculum Anitzeko programak eduki nahi dituzten ikastetxe publikoek baimena eskatu beharko dute, lanpostuen zerrendan Curriculum Anitzeko irakasleak esleitu badizkiete ere.
3. Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei dei egiten zaie Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko urtebeteko edo bi ikasturteko programatzako talde berrientzako baimena eskatzeko edota 2019-2020rako baimendu ziren programen jarraipena eskatzeko. Bi urteko taldea onartuta duten ikastetxeek jarraipena eskatu beharko dute eranskinean jasotako dokumentazioa emanez. Onartutako talde berri bakoitzaren kostua gutxi gorabehera 96.730,38 eurotakoa izango da.

### 2. Hartzaileak

Deialdi honetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek har dezakete parte.

### 3. Proiektuaren edukiak

Curriculum Anitzeko programan puntu hauek aipatu behar dira:

a) Hartzaileak:

1. Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 ikasletako taldeak, baldintza hauek betetzen dituztenak:
  - a) 2020ko abenduaren 31n **15 edo 16** urte beteta izanik, Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko **bi urteko programa batean** parte hartzeko:
    - Oinarrizko Hezkuntzan errepikatu izana.
    - 2019-2020 ikasturteko ezohiko deialdiaren ondoren, gehienez DBHko 1. eta 2. mailako 4 irakasgai edukitzea gainditu gabe.
    - DBHko 3. mailara pasatzeko gutxienerako baldintzak ez betetzea.



- b) 2020ko abenduaren 31n **16 edo 17** urte beteta izanik, Curriculum aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko **ikasturte bateko programa** batean parte hartzeko:
- Oinarrizko Hezkuntzan errepikatu izana.
  - 2019-2020 ikasturteko ezohiko deialdiaren ondoren, gehienez DBHko 1., 2. eta 3. mailako 4 irakasgai edukitzea gainditu gabe.
  - DBHko 4. urtera pasatzeko gutxieneko baldintzak ez betetzea.
- c) Curriculum-dibertsifikazioaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa batean parte hartzeko, ikasturte batez eta 2020ko abenduaren 31n 17 urte beteta, betekizun hauek bete behar dira:
- Oinarrizko Hezkuntzan errepikatu izana.
  - Graduako titulurako proposamenik jaso ez izana.
- d) Curriculum-dibertsifikazioaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa batean parte hartzeko, ikasturte batez eta 2020ko abenduaren 31n 18 urte beteta, betekizun hauek bete behar dira:
- Curriculum-dibertsifikazioko programa bat egin izana, ikasturte batekoa edo bikoia, eta graduako titulurako proposamenik jaso ez izana.

OHARRA: 2020ko abenduaren 31n 17 edo 18 urte beteta dituzten ikasleen kasuan, eta programara sartzeko proposamena egin aurretik, bide horretan titulua lortzeko aukerak baloratuko dira; izan ere, 18 urtetik aurrera EZINGO dute Oinarrizko Lanbide Heziketa egin.

2. Programa hauetarako proposatzen den ikasle-kopurua DBHko 3. eta 4. mailako ikasle guztien % 15etik gorakoa ez izatea.
3. Baimendutako talde-kopurua bi baino gutxiago izatea, DBHko 3. eta 4. mailan 300 ikasletik gora dituzten ikastetxeetan izan ezik.
4. Talde berean honako egoera hauetako batean dauden ikasleek bakarrik parte hartzea:
  - Ikasturte bateko programa egiten dutenak.
  - Bi ikasturteko programako lehenengo urtea egiten dutenak.
  - Bi ikasturteko programako bigarren urtea egiten dutenak; programa horretan, ikasturte bateko programa egiten duten ikasleak edo errepikatzaileak sar daitezke.
5. Curriculum-dibertsifikazioaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programarako aurreikusi den ikasle bakoitzaren ikasturte amaierako txosten orientatzaileak irakasleen proposamena jaso dezala, ikasle hori programan sartzeari dagokionez.

#### b) Jardunbideak

Programen garapenean, ikastetxeek honako puntu hauek izan behar dituzte kontuan:

- Curriculum aniztasuneko programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzera bideratuta daude. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 40. artikulua dioenez ("Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, curriculum-aniztasunaren



bidez" ), programa horiek esparruka berriazko taldeetan egin daitezke, edo ohiko taldeetan sartuta.

- Berriazko taldeetako ikasleek, gutxienez, 23 ordu emango dizkiete gizarte-hizkuntza eta zientzia-teknologiaren eremuei. Arloetako ikasgaiak ez direnak ohiko taldeetan (edonola ere 3 arlo gutxienez) edo berriazko taldeetan emango dira.
- Curriculum anitzeko programak arautzeko 1997ko uztailaren 9ko Aginduaren arabera (eguneratu gabe dagoena), ikastetxeak taldearen Oinarrizko programa finkatu behar du, bai eta taldeko kide bakoitzarentzako banakako programa ere.
- Irakasle batek edo gehiagok emango dute eremu bakoitza. Eremuko irakasleetako batek bere gain hartuko du ikasle horien banakako tutoretza eta, gutxienez, astean bi ordu eskainiko dizkio.
- Oinarrizko programa lantzeko, ikastetxeak zehaztu behar ditu ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea bermatuko duten metodologia, edukiak eta ebaluazio-irizpideak.
- Banakako programa lantzeko, irakasleek oinarrizko edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dituzte, hasteko. Programa osatzeko, irakasleak, ikasturtean zehar, gehituz joango dira ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituzten argibideak.
- Curriculum aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bat jarraitzen duen ikaslearen ebaluaziorako, oinarrizko gaitasunak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak izango dira erreferentzia nagusiak, eta programaren ebaluazio-irizpide espezifikoetan islatuko dira.
- Curriculum aniztasuneko ikasleak ikasturte bakoitzaren buruan izango dira ebaluatuak. Bi ikasturteko programetan, nahitaezkoa izango da lehengo kurtsotik bigarrenera pasatzea.
- Proposamena integratua denean, Curriculum aniztasuneko ikasleak ohiko taldeetan egingo ditu eremu guztiak. Modalitate horretan, curriculum esparruka, diziplinarteko proiektuak edo jakintza-arloka antola daiteke.
- Ikasleek ikasgelako oinarrizko curriculumari jarraituko diote, eta programan parte hartzen duten ikasleek jardura-plan bana izango dute non jasota egongo baitira norbere ibilbide akademikoa, edukien egokitzapena eta ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.
- Ikastetxeak egindako proposamenean zehaztuko da zer irakasgaitan eta unetan egiten diren ikasgelako indargarriak Curriculum aniztasuneko ikasleek bermatuta izan dezaten oinarrizko gaitasunak eskuratzeko laguntza jasoko dutela. Era berean, irakasleek erabakiko dute nor eta noiz arduratuko diren banakako tutoretzez.



#### 4. Eskabideak aurkeztea

1. Eskabideak aurkezteko epea jarraibide hauek Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta ekainaren 25ean amaituko, egun hori ere barne.

Epe hori interes orokorraren babesa eta zerbitzuen oinarritzko funtzionamendua bermatzeko ezartzen da martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak emandakoaren arabera.

2. Eskabideak dagozkien eranskinekin batera elektronikoki tramitatuko dira. Tramitazioa ikastetxe publikoei zuzendutako atari honetan egingo dira: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>)
3. Deialdiko fitxa eta deialdi honi buruzko berriak atari honetan argitaratuko dira. Eskatzaileek fitxan eskuratu ahal izango dituzte eskabidea egiteko gidak eta jarraibideak.

#### 5. Eskabideak eta dokumentazioa

1. Ikastetxeek eskabideak aurkeztuko dituzte Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak eta urtebeteko Curriculum Aniztasuneko taldeak baimentzeko edota 2019-2020 ikasturtean bi ikasturteko baimendu ziren programen luzapena berritzeko.
2. Eskatzaileek, eskabidearekin batera doan erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, honako betebeharrak hauek betetzen dituztela egiaztatuko dute:
  - Curriculum Aniztasunaren bidez Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak eskatzen duen ikastetxeak oinarritzko programa eta banakako programak lantzeko konpromisoa hartzen du. Dokumentu hori Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da, 2020 urteko urria bukatu baino lehen.
  - Ikastetxeak Banakako programa landuko du non irakasleek, oinarritzko edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko ditu hasteko. Programa osatzeko, ikasleak oinarritzko gaitasunak eskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituzten argibideak gehituz joango dira irakasleak, ikasturtean zehar.
  - Proiektuaren helburuetarako izango dira ikastetxeak jasotako baliabideak.
  - Ikastetxeak programa lantzeko konpromisoa hartzen du, deialdian ematen diren jarraibideak betez.
  - Ikastetxeak programak azalduko duen memoria bat egingo du eta memoria hori ikasturtearen amaieran Ikastetxeko urteko memorian jasoko da.
  - Halaber, eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen dituela baliabide horiek jasotzeko indarrean dagoen jarraibidetan ezarritako baldintzak
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 40.2 artikuluan dio: "Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bati ekiteko, ezinbestekoa da ikaslearen ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa, ikasleak eta haien gurasoak edo



legezko tutoreak entzun ondoren". Ikastetxeko zuzendariak egiaztatuko du ebaluazioak egin direla.

## 6. Kudeaketa-organoa

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu Jarraibide honetan aurreikusitako errekurtsuok emateko prozedura

## 7. Hautaketa-batzordea

Hautaketa-batzordeak eskabide berriak barematuko ditu, bai eta baimendutako taldeen kopurua handitzeko eskabideak ere. Hautaketa-batzordeak kide hauek izango ditu:

- Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duena; batzordeburua izango da.
- Ikastetxeetako Zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.
- Pedagogi Berritzapen zerbitzuko burua.
- Ikuskari nagusiak izendatutako ikuskari bat.
- Hezkuntza berritzatzeko Lurraldeburuak edo hark eskuordetzen dituzten pertsonak.
- Hezkuntza berritzatzeko zuzendaritzako teknikari bat, Hezkuntza berritzatzeko zuzendariak izendatua; idazkari-lanak egingo ditu.

## 8. Hautaketa-prozesua

Eskabideak hautaketa-batzordeak baloratuko ditu, baremo honen arabera:

1. Eskola-porrotaren maila: ikasturtea gainditu ez duten eta titulua eskuratu ez duten DBHko ikasleen **P** portzentajea: (2018-2019 ikasturteko datu ofizialak).

$P < 5$	3 puntu	$25 \leq P < 30$	28 puntu
$5 \leq P < 10$	8 puntu	$30 \leq P < 35$	33 puntu
$10 \leq P < 15$	13 puntu	$35 \leq P < 40$	38 puntu
$15 \leq P < 20$	18 puntu	$40 \leq P < 45$	43 puntu
$20 \leq P < 25$	23 puntu	$45 \leq P$	48 puntu

2. DBHn matrikulaturiko ikasle bekadunen **Q** portzentajeari buruzko datuak.

$Q < 40$	0 puntu
$40 \leq Q < 50$	1 puntu
$50 \leq Q < 60$	4 puntu
$60 \leq Q < 70$	6 puntu
$70 \leq Q < 80$	8 puntu
$80 \leq Q$	10 puntu



(Baremo honi dagozkion datuak Sailaren datuak dira. Beraz, ikastetxeek ez dute zertan jarri beren eskabidean).

Bere eginkizunak hobeto gauzatzeko, Hautaketa-batzordeak hezkuntza arloko zenbait adituren eta aholkularien txostenak eta laguntza jaso ahal ditu.

Errekurtsoak, baremazioan lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera emango dira, hauek amaitu arte.

Puntuazio-berdinketa kasuetan, ebazteko, kontuan hartuko da Hamaika Esku programara atxikituta izatea; berdinketa jarraitzen badu eskola porrotaren maila, eta jarraitzen badu bekadunen portzentaiaren lortutako puntuazioa.

Proposatutako ikasleen matrikulazioa erraztuko duten mekanismoak proposatuko ditu hautaketa-batzordeak, baldin eta haien taldea onartu ez bada, Curriculum Anitzeko taldeen plangintza kontuan hartuta eta baliabide horren eskaintza eskola-mapako zonetan orekatzeko beharrezana kontuan hartuta.

Hautaketa-batzordeak, egindako eskaeren balorazioa kontuan harturik, ebazpen-proposamena prestatuko du eta Hezkuntzako Berritzatzeko Zuzendariari helaraziko dio. Era berean, baztertutako eskaeren zerrenda ere jasoko da.

## 9. Prozedura ebaztea

1. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak, Hautaketa Batzordeak helarazitako proposamenak aztertu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko epean emango du ebazpena, aurkeztutako proiektuak hautatuak izan diren ala ez zehaztuta. Hezkuntza Saileko webgunean eta: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) atariaren bidez ebazpena argitaratu eta jakinaraziko zaie interesdunei.
2. Ikastetxe interesdunek bost eguneko epea izango dute, Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, haren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak ebatziko ditu.
3. Aurreko paragrafoan aditzera ematen den gehienezko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskabidea ukatu zaiela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua ondo onartarako.

## 10. Jarraipena eta ebaluazioa



Ikastetxeek, urriaren 31 baino lehen bidaliko dute Ikuskaritzara eta Zonako Berritzegunera proiektuan parte hartuko duten ikasleen behin betiko zerrenda. Inprimakia eskura eta aurkeztu daiteke "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) atarian bidez.

Ikasturte hasieran, Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du ea bat datozen bi zerrenda hauek: batetik, Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetarako proposatutako ikasle zerrenda, bestetik, egiazki haietan eskolatutako ikasleen zerrenda.

Zonako Berritzeguneari programari buruzko aholkularitza emango du.

## 11. Datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak izeneko 19. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten zentruak baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 25a

MIREN MAITE ALONSO ARANA  
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN